

IKASLEENTZAKO INFORMAZIO OROKORRA

Ikastaroko lehen egunean, irakurri arretaz ikasle gisa hartzen dituzun konpromezuak, eta bete ezin dituzula uste baduzu, ez sinatu bertaratzea eta esaiotzu prestakuntza zentroari ez duzula parte hartuko, erresebako zerrendan dagoen pertsona batek ordezkatzeko.

- **DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROA.** Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak eta Nafar Lansareak (SNE-NL) diruz laguntzen dute ikastaroa. Prestakuntza zentroak hura garatzeko behar diren material eta tresna guztiak emanen ditu.
- Ikastaroa pertsona **langabe zein landunei zuzenduta dago.**
 - **Langabetzat** hartuko dira SNE-NLan **lan-eskatzaile gisa inskribatuta daudenak**, bekadunak eta Gazte Bermearen Sistema Nazionalean inskribatuta daudenak.
 - Pertsona **landuntzat** hartuko dira Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenak edo mutualitateetan kotizatzen dutenak.
- Prestakuntza ekintzetan **gehienez ere 8 ordu egunero** parte hartu daiteke. Muga horretan sartuko dira, dagokion kasuetan, lantokiko prestakuntza praktikoaren moduluko orduak.
- Ikastaro presentzialak eta praktikaldia **istripu-aseguru batek estaltzen** ditu ikasgelan eta joan-etorrietan. Istripuren bat izanez gero, jarri harremanetan prestakuntza zentroarekin.
- **NAHITAEZKO DA IKASTARORA JOATEA.** Batez ere **langabetuei zuzendutako** ikastaroetan, hilean hiru aldiz baino ez dira onartuko justifikatu gabeko hutsegiteak; beraz, agiri bidez justifikatu behar dira hutsegiteak edo puntualtasun faltak. **4. hutsegitea arrazoirik gabe eginez gero**, ikastaroa **utzi beharko duzu.**
- Ikaslea ikastaro presentzialetara **zenbat joaten den** kalkulatzeko, **justifikatu gabeko hutsegiteak eta justifikatutakoak** kontuan **hartuko dira.** Eta, ikastaroa hasi ondoren sartzen diren parte-hartzaileen kasuan, egin **gabeko hasierako orduak.**
- Ikastaro bat **arrazoi justifikaturik gabe UZTEAK beste bat egitea eragotziko du 3 hilabetez**, eta enplegu-eskariari eta prestazioari buruzko zehapen-espeditentia hasiatekarako ekar dezake. Ikasleak ekintza utzi duela eta zergatik utzi duen jakinarazi behar dio ikastetxeari. **Justifikatutzat jotzen da lana aurkitu eta Gizarte Segurantzaren alta emanda ikastaroa uztea.** Lan ordutegia ikastaroarekin bateragarria bada, ikasturtea bukatzen ahalko da.
- **KANPORATZEA.** Ikastarotik kanporatzeko **arrazoiak** hauek izan daitezke:
 - Aprobetxamendu eta interes falta.
 - Prestakuntza ekintzaren garapen normala zailtzea.
 - Ikastetxeko irakasle taldearekin, lankideekin edo langileekin errespeturik edo begirunerik ez izatea.
 - Ikastetxeko instalazioen eta ekipamenduen erabilera desegokia.
 - Ikastetxeko funtzionamendu erregelamenduan ager daitezkeen beste edozein.

Ikastarotik kanporatuz gero, **ezin izango da beste bat egin kanporatzen denetik 12 hilabetez.**

- **DIPLOMA:** prestakuntza-zentroak diploma bat emango du **prestakuntza ebaluazio positiboarekin gainditu denean**. Diploma lortzeko **baldintza** hauek bete behar dira, modalitatearen arabera:
- Presentziazko modalitatea: gutxienez ikastaroko orduen %75era heltzea.
 - Teleprestakuntza modalitatea: programatutako jardueren %75a gutxienez egitea.
 - Prestakuntza mistoa: prestakuntza ekintzaren %75 gutxienez egitea. Kalkulua modu haztatuan egingo da, bertaratutako orduen eta teleprestakuntzako jardueren arabera.

- **BEKAK ETA LAGUNTZAK IKASTARO PRESENTZIALETAN ETA LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKETAN**
Bekak eta laguntzak **langabetuentzat dira, kasuan kasuko enplegu agentzian inskribatuta baldin badaude**. Pertsona bat langabetua edo landun dagoen zehazteko, prestakuntza edo praktikaren hasieran dagoen lan egoera hartuko da erreferentziatzat.

Beka eta laguntza hauek jaso daitezke: **garraiorako laguntza, familia eta lana bateratzeko laguntza eta ezgaitasun beka**. Ikastaro bakoitzean beka eta laguntza bat baino gehiago eskatzen ahalko dira.

- **Ezgaitasun-beka** ofizialki aitortua dutenentzat. Laguntza eguneko 9 eurokoa izanen da.
- **Garraiorako laguntza:** Iturrondo zentrorako joan-etorrien kostua ordaintzeko (hiri-garraioa edo kilometrajea). Eskualdeko hiri garraioaren bidez (villavesa) ongi etorri ahal bazara, garraio horren prezioa ordainduko da. Garraio publiko egokirik ez duten herrietatik bazatoz, kilometroko 19 zentimo ordainduko dira, gehienezko laguntza 15 eurokoa izanik.
- **Bateragarritasunerako laguntza:** 12 urtetik beherako seme-alabak edo beren kargura dauden eta IPREMaren %75etik gorako errentarik ez duten pertsonentzat. Hau da, familia unitatea osatzen dutenen errenta guztien batura zati familia osatzen duten kideen kopurua ezin da 469,97 eurotik gorakoa izan hilean. Laguntza eguneko IPREMaren (13,44 euro) %75ekoa izanen da ikastaroa egiten den egun bakoitzeko.

- **LAN-ESKARIARI BURUZKO INFORMAZIOA (LANGABETUAK):**

Ikastaroaren hasieran alta emango zaizu Nafar Lansarean prestakuntza ekintza bateko parte-hartzaile gisa, eta **eskaera etenda egongo da, hau da, ez duzu berri beharko eta ez duzu** enplegu-
eskaintzei buruzko informaziorik jasoko. Gainerako zerbitzuak ez dira ukituko. Langabeziagatiko prestazioa ez da inoiz eteten, zure lan eskaria enplegua aurkitzeagatik bertan behera geratzen ez den bitartean.

Eskaera ikastaroa hasi eta lehenengo 15 egunetan zigilatu behar baduzu, berri egin beharko duzu. Une horretatik aurrera eta ikastaroa amaitu arte, etenaldian egongo da. **Ikastaroa amaitu** edo bertan behera utziz gero, zure **enplegu agentziara joan beharko zara zure datuak eguneratzeko** eta zure **eskaera berri aktibatzeko**.

Ikasturtean zehar lan egoeran aldaketaren bat gertatzen bada (adibidez, ordu batzuetan lan egiten baduzu), berriro hasi beharko duzu lan eskaera.

Lan eskaintzak jasotzen jarraitu nahi baduzu, jarri harremanetan zure enplegu agentziarekin edo erabili bulego elektronikoaren zerbitzua www.empleo.navarra.es web orrian.